

Okupazio sinbolikoak egingo dira hilaren 24ean

L.K.G. / GASTEIZ

Gasteizko Gaztetxeko ki-deek atzo jakin arazi zuten datorren 24ean okupazio sinbolikoak burutuko direla Euskal Herrian, eta manifestazioa egingo dute iluntzeko zortziretan Donostian. «Lur-espekulazioaren gehiegikeria», Ordiziako Gaztetxean «nahita egindako» sutea edo Elgoibarrekoaren eraisketa izan dira Hego Euskal Herriko hainbat herritako gaztetxeetako gazteen bilerak eragin dituzten arrazoiatariko batzuk. Gainera, sasoi honetan «politikariak etxebizitzaz esaten dituzten faltsukeriak» salatu zituzten.

GERNIKAKO AZOKA

Salmenta nahiko eskasa izan zen eta ez zen jende gehiegi hurbildu

MARIBI CAMPILLO / GERNIKA

Eguraldiarekin bat eginez, ez zen jende gehiegi hurbildu atzo azokara eta salmentak ere ez ziren saltzaileen gustokoak izan. Erregatero edo maioristak deitzen direnak erosi zituzten produktu gehienak.

Prezioek behera egin zuten eta landareak eta loreak izan ziren gehien saldu zirenak. Patata berriz, nahiko kantitate gutxi azaldu zen, gaitzak jota bait dago. Loreak izan zuten salmentarik onena, lore postuak bete-beteak egon ziren.

BARAZKIAK

Aza 60-70 pezeta, azelgak 30-40, baba 100 kiloa, tipulinak 50, apioa 100, porruak 300-400 dozena, patata 100 kiloa, kalabaza 80 kiloa, perrexila kantitatearen arabera 10-60, rabanitoak 30, eskarola 30-40, letxuga 30-40, piper lehorrak 500-1.000.

LANDAREAK

Tomatea 600 zientoa, piperra 600 zientoa, porrua 300 zientoa, letxuga 300 zientoa, aza 300 zientoa, tipula gorria 200 zientoa, tipulina 200 zientoa, azelgak 400 zientoa.

HEGAZTIAK

Oilaskoa 200 pezeta, oilanda 800, txitoak 40, galeperrak 200.

EHUko klaustroa bertan behera gelditu zen mahaikide batek zeraman kamisetagatik

Errektoretza eta irakasleek Eusko Jaurlaritzarekin bilduko dira gaur


Klaustro mahaikideak eta ikasleen ordezkari 'Barbera kanpora' zioen kamiseta bat soinean zeramalako, Mahaiak bertan behera utzi zuen atzo Emilio Barberak bere gestioaren berri eman behar zuen Klaustroa. Errektoretza eta ikasle kontratadunek Eusko Jaurlaritzarekin bilduko dira gaur goizean.

G.A. / BILBO

Ordu t'erdiko atzerapenez hasi zen errektoretzaren gestioari buruzko Klaustroa, bertan behera gelditu zen mahaia osatu bezain pronto, irakasleen ordezkaria zen mahaikideak 'Barbera kanpora' zioen kamiseta bat zeramalako

Ikasleek aukeraturiko ordezkariak zeraman kamiseta kendu arte, Emilio Barbera Errektorea, AZP eta irakasle tituludun eta katedradunen ordezkarien aldeko botuekin, mahaia Klaustroa bertan behera uztea erabaki zuen. kamiseta ken zetala eskatu zion Barberak ikasleen ordezkariari, «mahaikide bati alusio pertsonalak» egiten zitzaizkiola argudiatuz.

Ordu erdiko geldiunearen ondoren, mahaia Klaustroa behin betikoz bertan behera uztea erabaki zuen. Barberak ikasleen ordezkariari, «desmen egiteagatik» espediente zabalduko zion mehatxua luzatu eta bere gestioari buruzko galderei idatziz erantzungo ziela adierazi zuen. Bestalde, Paco de Oñate titulu eta katedradunen irakasleen ordezkari eta mahaikideak bere dimisioa aurkeztu zuen Klaustroan bertan.



Hainbat jende jantzi zuen horrelako kamiseta.

JOSE SIMAL

«Nazka ematen digu ahoa itxita izatea eta behin eta berriz gure Klaustroan askatasunez hitz egitea debeka diezaguten. Klaustroa, unibertsitari guztiek espresa gaitzekeen organu kolegiatua da, baina elkar errespetatuz», adierazi zuen Barberak Klaustroa bertan behera utzi ondoren.

«Gaurkoa koakzio berri bat izan da. Klaustroa atzera bota behar izan dugu hitzik egingabe, gure gestioa eta etorkizunerako planak aurkeztu gabe. Txantaiaren aurrean amore ematen badugu, gure emaitzak eza-gutzero emateko beldur garaleta pentsa dezakete, baina ez gara beldur oso ondo egindako gestioa aurkezteko. Duintasun kontua da, eta oraingoan duintasunak irudiak baino garrantzi handiagoa dauka. Beraiek boikoteatu dute Klaustroa», gehitu zuen Barberak.

Jarraian, LAB, Stee-Eilas, IA eta Informatikako Ikasleen Asanbladako ordezkariak eskaini zuten prentsaurrekoan aditzera eman zuten, «Klaustroa bertan behera uztea Barberaren botere gehiegikeria berri bat da, erabaki honen arrazoiak ez da kamiseta baizik eta Unibertsitateari bere gestioari buruzko eztabaida lapurtzea. Gu eztabaida egitearen alde gaude eta honen adibide epearen barruan mahaia aurkezturiko ehundaka galderak dira. Gertakizun honek agerian uzten du Barberaren gaitasun eza eta horregatik eskatzen dugu bere dimisioa».

Atzoko Klaustroaren funtzionamendua salatu zuten «mahaia ikasleen ordezkariak gabe erabaki duelako Klaustroaren funtzionamendua». Era berean, osteguneko Klaustroa baino lehen atzokoa egin beharra nabarmendu zuten.

Viano: «Umeei ez genieke eman beharko kolperik txikiena ere»

ONATI

«Umeei sekula ere ez litzaieke jo behar arazoa bere horretan eduki nahi ez bada behinik behin» adierazi zuen atzo Oñatin Emilio Viano kriminologo iparramerikarrak. Umeei egiten zaizkien abusu fisiko eta se-

xualak aztertzeko ihardunaldien lehen eguneko hitzaldia eman zuen Vianok. Ihardunaldiak Juan San Martin Arartekoak zabaldu zituen.

«Munduko epidemiatzat» eta «osasun publikoaren arazotzat» jo zuen irakasle iparramerikarrak arazoa. Bere ustez ume bati ematen zaion lehen kolpea alkoholiko batek hartzen duen lehen koparekin konpara daiteke. «Kolpea jo ondoren 'bere onerako duela' ikasten duen umeak ederki baino hobeto barneratzen du metodo hori eta urteetara bera izango da anai-arreba, seme-alaba eta gurasok joko dituenak. Umeak jotzearekin arazoa luzatu

baino ez dugu egiten», salatu zuen Viano irakasleak.

Tratu txarrak zenbat ume jasaten dituzten daturik ez dagoela adierazi zuen, baina EEBBetan bakarrik, urtean bi milioi salaketa izan ohi dela, «benetan gertatzen diren tratu txarren laurdena baino ez» esan zuen Vianok. Umeen prostituzioa ere salatu zuen. Ekialdeko herrialdeetan gertatzen dela aitortu zuen, Thailandian batipat. Herrialde aberats eta pobreetan umeekiko tratu txarrak neurri beretsuan gertatzen direla nabarmendu zuen, «nahiz batzuk eta besteetan arrazoiak eta moduak ezberdinak izan».

LABURREAN

ONCEREN

bonokupoiak istiluak sortu ditu

ONCERen bonokupoiak istiluen artean jarri zen atzo salmentan. Saltzaileak ez daude kupoi berri hau saltzera beharturik, baina «kompetentzia zuzena dagio ohizkoari eta sistema honek langileei dagokien komisioaren murrizpena dakar», UGTk salatu duenez. ELAk «kupoi berria onar dezaten salmenta inspektoreek saltzaileak presionatzeko ari direla» gaineratu du.

ERTZAIN biren aurkako epaiketa hasi zen atzo

Hemezortzi urtetako espetxeratzea eskatu zuen atzo Ministeritza Fiskalak Jose Ignacio Gutierrez del Rio eta Juan Manuel Martinez Amaudia ertzaintzat, 1988an beste bi prozesarekin batera hiru kilo heroinarekin atxilotuak izan zirenak. Defentsak berriz, biren askatasuna eskatu zuen.

UNIBERTSITARI

Batzordeak NUPrako programa aurkeztu du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) egingo diren Gobernu Batzordetarako hauteskundetan bigarren ikasle zerrenda aurkeztu zen atzo, Unibertsitari Batzorde Nafarrarena. Programa azaltzerakoan garrantzi handia eman zioten sei milioi pezetako subentzioa izan duen Argibide Bulegoari, eta ikasketa planak berritzea, zerbitzuak hobetzea eta beste unibertsitatekin elkarlanak gaitziztearen aldekoak agertu ziren ordezkariak.

Moto gidari bat hil zen Bilbon istripuz

Ignacio Sanchez Zubiau 24 urteko moto gidaria hil egin zen atzo Bilboko Lehendakari Agirre kalean izan zuen istripuaren ondorioz. Udaltzaingok emandako informazioaren arabera taxi baten kontra egin zuen txoke motoak eta ondorioz aidean irten zen gidaria. Basurtoko ospitalera eraman zuen anbulantzia batek baina hara iritsi orduko hil egin zen.

EUSKAL KULTURAREN ALDIZKARI BERRIA